

BERRIA

Edanak ez du dena kalte

'Txootx!' ikuskizuna eskainiko dute datorren igandean, Astigarragan, Euzkitze eta Peñagarikano bertsolariek, Ereintza abesbatzak eta Aiztondo abesbatzak, Sagarrondotik jaialdiaren barruan

JUAN LUIS ZABALA - ANDOAIN

Kantu eta dantza askoren oinarrian dago edaria oro har, eta sagardoa bereziki. Hori ekarriko dute gogora, datorren igande eguerdian, Ereintza taldeko txistulariek eta dantzariak, Aiztondo abesbatzak eta Anjel Mari Peñagarikano eta Euzkitze bertsolariek, *Txootx!* dantza, musika eta bertso ikuskizunaren bidez, Astigarragako Oialume dantza-lekuan, Sagarrondotik 2005 jaialdiaren barruan. Guztira, 50 edo 60 lagun inguruk hartuko dute parte emanaldian, eta 400 bat ikusle biltzea espero dute. Ondoren, 120 lagun inguru gertatuko dira bertan bazkaltzen.

«*Txootx!* ez da ikuskizun berri-tzailea», adierazi du Jon Maia Ereintza taldeko dantzariak. «Ez dugu ezer berririk asmatu. Jende guztiarentzat oso ezagunak diren dantzak, kantuak eta elementuak batzen ditu ikuskizunak». Baina «inongo konplexurik gabe» eskainiko dituzte horiek, «gure kulturen dauzkagun elementuak erakusteko modukoak eta ikuskizun polita osatzeko egokiak baitira».

Iazko udan, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Getariako Ameztoi txakolindegian egin zuten emanaldian du jatorria *Txootx!*-ek. Orduan Landerbaso abesbatzak egin zuen lana Aiztondok egingo du igandean, Igor Arroio zuzendari duela.

«Jose Inazio Ansorenari bururatu zitzaion mahaiaren inguruko giroak gure kulturari zer eman dion erakutsiko zuen ikuskizuna osatzeko ideia. Askotan



IGOR ARROIO, Euzkitze, Peñagarikano eta Maia, atzo, Martin Ugalde parkean, ikuskizuna aurkezten. JON URRIBI / ARGAZKI PRESS

aipatzen dira edariaren ondorio kaltegarriak, baina ez da ahaztu behar edariaren inguruko giroan zenbat kantu eta dantza sortu den». Elementuak ezagunak izateak jendearen parte hartzea bultzatuko duela eta «oso giro alai» sortzen lagunduko duela uste du Maiak. «Naturaltasuna» da ezaugarrietako bat. «Une oro gaude guztiok jendearen bistan, eta ez dago argi efekturik».

Kanpoaldean hasiko da ikuskizuna, nesken soka dantzarekin eta sagardo dastatzearekin. Barruko saioak edanarekin eta afalosteko dema giroarekin zerikusia duten kantuak, bertsoak eta dantzak uztartuko ditu.

Getariako esperientziaren emaitzak igandeko saioaren aurrean lasai sentitzeko bidea ematen dio Euzkitzeri. «Uste dut Getariako saioan lortu genuela jendearengana iristea eta gauza atsegina, bizia eta gustagarria egitea. Inprobisaziorako eta ezustekoren bat emateko parada izan genuen, eta horretarako oinarri ona dugu oraingoan ere».

Euzkitze, bertsotarako animatuta

«Geldi egonean ardoa ontzen da, baina bertsolaria nekez», Euzkitzeren ustez. Azken sei urteetan bertso saio bakan batzuetan bai-

no ez aritu arren, bertsolari izaten jarraitzen duela dio, eta bertsolariek egiten dituzten lanik gehienetarako «lehenengo maila bertsuan» ikusten duela bere burua, nahiz eta badakien puntu askoko bertsoetan edo bestelako ariketa zailetan hasiz gero erri-ma almazena urritua izatearen ondorioak pairatuko lituzkeela.

Sortzen dioten irrikaren arabera erabakitzen du Euzkitzek, gaur egun, eskaintzen dizkioten bertso lanei zer erantzun eman. Alboka taldeko kideekin batera, uztailan AEBetara joango da, Rockspringsen egingo den AEBetako euskaldunen festa nagusian bertsoetan aritzera.